



DEKRETUA / DECRETO

Espediente zk./ Expediente nº: 6361/2026

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Dirulaguntza deialdia/ Convocatoria de subvención

Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Dirulaguntzak errotulazioa euskaraz jartzeagatik-2026 - Deialdia

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Administrazio-espedientea hasi da Amorebieta-Etxanoko Udalak 2026ko DIRU-LAGUNTZAK emateko udalerriaren merkataritza esparruan errotuluak, web-orriak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeagatik.

ZUZENBIDEKO OINARRIA: Amorebieta-Etxanoko Udalaren dirulaguntzak arautzeko BAO 149. zk.an, 2008ko abuztuaren 6an argitaratutako ordenantza, eta gizarte-ongizate, kirol, kultura, hezkuntza nahiz euskara arloetako dirulaguntzei buruzko arau bereziak.

ZUZENBIDEKO OINARRIA: 38/2003 Legearen 17.1 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikuluan jasotzen dena, Alkateari dagokio gai honen gaineko erabakia hartzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIA: Dirulaguntza hau norgehiagokako dirulaguntza gisa jasota dago 2026ko aurrekontuan eta 5.000 euroko aurrekontu-kreditua dago 3351-47100 aurrekontu-partidaren kargura, goian agertzen den proiekturako.

Se ha iniciado el expediente correspondiente a la concesión de las SUBVENCIONES 2026 destinadas a la instalación de rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera en el ámbito comercial del municipio del de Amorebieta-Etxano.

CONSIDERANDO La ordenanza reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano publicadas en el BOB Nº 149 del 6 de agosto del 2008 y de aquellas normas específicas para las subvenciones en materia de bienestar social, deporte, cultura, educación y euskara.

CONSIDERANDO que es competencia de esta Alcaldía la resolución del presente asunto de conformidad con lo establecido en el artículo 17.1 de la Ley 38/2003 y el artículo 21 de la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local.

CONSIDERANDO que esta subvención se considera como de concurrencia competitiva en el presupuesto 2026 y que existe crédito presupuestario por importe

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiazapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 8





de 5.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 3351-47100 con destino a las actividades indicadas arriba.

2026ko irailaren 3a(e)ko PR/2026/4248 ebazpen proposamena ikusita, 2026ko irailaren 3a (e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/4248 de 3 de septiembre de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 3 de septiembre de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

LEHENENGOA 2026ko deialdia onartzea Amorebieta-Etxanoko Udalak udalerriaren merkataritza esparruan errotuluak, web-orriak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak emateko.

BIGARRENA horren berri ematea Kontuhartzailetzari, kontuak atera eta beharrezkoak diren eragiketak egin dezan emandako diru-laguntzak ordaintzeko, indarrean dagoen udal aurrekontutik.

PRIMERO Aprobar la convocatoria correspondiente a la concesión de las subvenciones de 2026 destinadas a la instalación de rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera en el ámbito comercial del municipio de Amorebieta-Etxano.

SEGUNDO Comunicar la resolución adoptada a los servicios de Intervención, al objeto de que realicen las operaciones necesarias para el abono de las subvenciones concedidas.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGRRQHE55ZKCK
Egiazapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 8



Amorebieta-Etxanoko Udalaren dirulaguntzen deialdia, 2026ko ekitaldian udalerraren merkataritza esparruan errotuluak, web-orriak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeko.

Amorebieta-Etxanoko Udalak 2008/07/24an egindako Ohiko Osoko Bilkuran behin betiko onestea erabaki zuen Amorebieta-Etxanoko Udalaren dirulaguntzen eta Gizarte-Ongizate, Kultura, Kirol, Hezkuntza eta Euskara gaietako berariazko arauen Ordenantza Arauemailea (BAO 149.zk. 2008, abuztuak 6). Horrek arautzen duen ildotik deialdi hau egiten da.

1. DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da 2026 urtean Amorebieta-Etxanoko merkataritza finantzatzea errotuluak, web-orriak eta korporazioaren irudiak euskaraz jartzeko.

2. AURREKONTU ZUZKIDURA

Dirulaguntzek 2026ko udal-aurrekontuan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura dute, 3351 47100 partidan, guztira 5.000 €.

3. ONURADUNAK

Aurreko atalean azaldutako jarduerak sustatzen edo egiten dituzten pertsonak onuraduntzat hartuko dira.

Honakoak izan beharko dira:

- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzaren onuradunak: egoitza Amorebieta-Etxanon duten, Merkataritza- eta Ostalaritza-establezimenduetako arduradunak.

Convocatoria del Ayuntamiento Amorebieta-Etxano para concesión subvenciones durante el ejercicio destinadas a la instalación de rótulos web e imágenes corporativa euskera en el ámbito comercial municipio.

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano Sesión Plenaria Ordinaria de fecha 24/07, acordó aprobar definitivamente la Orden Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano y de aquellas no específicas en materia de Bienestar Social, Cultura, Deporte, Educación y Euskera (Nº 149, de 6 de agosto de 2008). Atendiendo a lo cual se efectúa la siguiente convocatoria:

1. OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

El objeto general de esta convocatoria es subvencionar el comercio de Amorebieta-Etxano para la instalación de rótulos, páginas web e imágenes corporativas en euskera durante el año 2026.

2. DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

Las subvenciones cuentan con una dotación presupuestaria de 5.000 € prevista en el presupuesto municipal 2026, en la partida 47100.

3. BENEFICIARIOS/AS

Tendrá consideración de beneficiario, persona física o jurídica que promueva o realice la actividad descrita en el apartado anterior.

Deberán ser:

- Beneficiarios de subvención por instalación de rótulos en euskera: representantes de establecimientos comerciales hosteleros con sede en Amorebieta-Etxano.

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7MBADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiazapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 8



- Korporazioaren irudia euskaraz jartzeko dirulaguntzaren onuradunak: egoitza Amorebieta-Etxanon duten Merkataritza- eta Ostalaritza-establezimenduetako arduradunak.
- Web-orriak euskaraz jartzeko dirulaguntzaren onuradunak: udalerriko elkarte edo entitateak.

Edozein kasutan ere, horiek guztiek Gizarte Segurantzako kuotak eta tributu-zorrak ordaindu dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte.

4. DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzak norgehiagoka araubidez esleitu dira. Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzailea eratuko da. Epaimahai kalifikatzaile horrek, dokumentu honetako 7. atalean ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen balorazioa egingo du, eta dirulaguntzak emateko edo ukatzeko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

5. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN EMATEA

Dirulaguntzak beste erakunde publiko nahiz pribatuk xede horrexetarako ematen dituztenekin bateratu ahal izango dira, baina inola ere ez da egongo behar baino gehiagoko finantziatorik; hau da, beste erakunde batzuen dirulaguntzekin batuta, dirulaguntzak ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.

Dirulaguntzak batzean behar baino gehiagoko finantziarioa gertatuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du Amorebieta-Etxanoko Udalak emandako zenbatekoa, finantzatutako kopuru

- Beneficiarios de subvención por imagen corporativa en eus representantes de establecimientos comerciales y hosteleros con sede en Amorebieta-Etxano.

- Beneficiarios de subvenciones páginas web en euskara: asociaciones o entidades de ámbito municipal.

En todo caso, deberán presentar certificados acreditativos del pago de las cuotas de Seguridad Social y de las deudas tributarias.

4. RÉGIMEN DE CONCESIÓN

La concesión de las subvenciones se realizará mediante un sistema de concurso competitivo. A tal efecto se constituirá un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas y establecerá un orden de prioridad entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 7 del presente documento, y propondrá la concesión o la denegación de las subvenciones, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

5. CONCURRENCIA CON OTRAS AYUDAS

Las subvenciones serán compatibles con cualesquiera otras concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, sin que en ningún caso exista subrefinanciación, es decir, sin que el importe total subvencionado en concurso con otras entidades pueda superar el total de la actividad.

En caso de producirse subrefinanciación por concurrir subvenciones, el beneficiario tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

DEKRETUA DEKRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiaztapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma de gestión de documentos | 4. orrialdea, guztira 8



osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU ETA INFORMAZIOAK.

a) Eskaera Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaio, eta aurrez aurre (persona fisikoak bakarrik) aurkeztuko da Amorebieta-Etxanoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuaren sarrera-erregistroan; telematikoki, udalaren web orriaren egoitza elektronikoan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduan. **Eskabideak aurkezteko 20 egun baliodunekoa izango da urriaren 1etik hasita.**

b) Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa:

- E118 inprimakia.

- Establezimenduek korporazioaren irudia, errotulazioa edo web-orriak euskaraz emateko egin dituzten lanen fakturak aurkeztu beharko dituzte; baita errotulazioaren, korporazioaren irudiaren edo web-orriaren testuak eta argazkiak ere.

c) Dokumentazio hau ofizioz egiazta daiteke, eta, beraz, ez da aurkeztu behar. Hala ere, administrazioak datuen kontsultari aurka egiteko eskubidea baliatzen badute partikularrek, eskaera egitean aurkeztu beharko da:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- Erakunde juridikoa izanez gero, horren IFK.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- GSDNren ordainketa betebeharrak egunean

Etxano en proporción al importe aportado éste en relación con el total financiado.

6. LUGAR PRESENTACIÓN SOLICITUDES Y DOCUMENTOS INFORMACIONES QUE DE ACOMPAÑARSE A LA SOLICITUD.

a) La solicitud, dirigida a la Sra. Alcaldesa, se presentará presencialmente (solo personas físicas) en el Registro de entrada en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano; telemáticamente en la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento o en la forma prevista en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. **plazo para la presentación de solicitud será de 20 días hábiles a contar desde el 1 de octubre.**

b) Documentación necesaria para presentar la solicitud:

- Formulario A118

- Los establecimientos deberán presentar facturas destinadas a instalar en su corporativa, rotulación o páginas web en euskara; así como, los textos y fotografías correspondientes a la rotulación, en su corporativa o página web.

c) La siguiente documentación puede ser verificada de oficio, de manera que no será necesaria su presentación. No obstante, en caso de que los particulares ejerzan el derecho de oposición a la consulta de datos por parte de la administración, deberá ser aportada para hacer la solicitud:

- Documento acreditativo de la identidad de la persona solicitante.
- CIF de la entidad, en el caso de entidades jurídicas.
- Acreditación de estar corriente en

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7MBADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiaztapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma de gestión de documentos | 5. orrialdea, guztira 8



dituela egiaztatzen duen agiria.

d) Aldi berean beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu bada, Amorebieta-Etxanoko Udalaren deialdian aurkezten den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.

e) Aurkeztutako proiektua bere osotasunean baloratzeko, artikulua honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Amorebieta-Etxanoko Udalak eskatzaileari beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio.

f) Eskabideak Oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak beteko ez balitu, organo eskudunak interesdunari jakinaraziko dio, akatsa zuzen dezan. Horretarako, gehienez hamar eguneko epea izango du, eta hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68.artikuluaren aurreikusita dagoen bezala.

7. BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko balorazio irizpideak Amorebieta-Etxanoko Udalaren Dirulaguntzen eta Gizarte-Ongizate, Kirol, Kultura, Hezkuntza nahiz Euskara gaitako berariazko arauen ordenantza arauemailearen 50. artikuluan jasotakoak dira.

1. Errotulazioa:

- Euskara hutsean eginiko errotulazioa: dirulaguntzaren zenbatekoa izango da,

obligaciones tributarias.

- Acreditación de estar al corriente de con la TGSS.

d) En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención por la misma actividad ante cualquier otro organismo público o privado, la solicitud en la convocatoria ante el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano deberá incluir manifestación expresa en este sentido, con indicación de las instituciones a las que se haya presentado solicitud de financiación y la cuantía solicitada; o en caso contrario, recibida.

e) Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano podrá requerir al solicitante cualquier documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración del proyecto presentado.

f) Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en estas Bases, el órgano competente requerirá al interesado para que subsane en el plazo máximo de 10 días hábiles, indicándole que si no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015.

7. CRITERIOS DE VALORACIÓN

Los criterios de valoración para la concesión de la subvención serán los recogidos en el artículo 50 de la Ordenanza reguladora de subvenciones y normas específicas en materia de Bienestar Social, Deporte, Cultura, Educación y Euskera del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

1. Rotulación.

- Rotulación íntegramente en euskera. El importe de la subvención será el 50

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiaztapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma de gestión de documentos | 6. orrialdea, guztira 8



egiaztatu denaren % 50 (500 € baino gutxiago).

- Euskaraz eta gaztelaniaz egindako errotulazioa: dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren % 25 (300 € baino gutxiago).

2. Korporazioaren irudia:

- Euskara hutsean egindako korporazio-irudia: dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren % 50 (500 € baino gutxiago).
- Euskaraz eta gaztelaniaz egindako korporazio-irudia: dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren % 25 (300 € baino gutxiago).

3. Web-orriak:

- Euskara hutsean egindako web-orria. Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren % 50 (800 € baino gutxiago).
- Korporazioaren irudia euskaraz eta gaztelaniaz. Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, egiaztatu denaren % 25 (500 € baino gutxiago).

8. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA EGITEKO EPEA

Dirulaguntza eskatzen duten entitateek errotulazioan, korporazioaren irudian edo web guneetan egin beharreko instalazioak, jarduerak edo eragiketak 2026ko ekitaldian egin beharko dituzte.

Dirulaguntza jasotzeko justifikazioa honako hauen bidez egingo da:

- Burutu diren lanak ordaintzeko fakturak.
- Egindako lanen argazkia edo kopia.

Dirulaguntzaren xedea izan diren jarduerak burutu direla justifikatzen duten agiriak aurkezteko 2026ko abenduaren 31ra arteko

lo acreditado (menos de 500 €).

- Rotulación en euskera y castellano: el importe de la subvención será el 25% de lo acreditado (menos de 300 €).

2. Imagen corporativa:

- Imagen corporativa íntegramente en euskera: el importe de la subvención será el 50% de lo acreditado (menos de 500 €).
- Imagen corporativa en euskera y castellano: el importe de la subvención será el 25% de lo acreditado (menos de 300 €).

3. Páginas web:

- Página web íntegramente en euskera: el importe de la subvención será el 50% de lo acreditado (menos de 800 €).
- Imagen corporativa en euskera y castellano: el importe de la subvención será el 25% de lo acreditado (menos de 500 €).

8. PLAZO DE JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIÓN

Las entidades que soliciten esta subvención deberán efectuar la instalación o la actuación que se subvenciona (rotulación, imagen corporativa o página web) durante el año 2026.

La justificación requerida para percibir la subvención se realizará mediante:

- Facturas de los trabajos llevados a cabo.
- Fotografía o copia de los trabajos desarrollados.

El plazo de presentación de la documentación será el 31 de diciembre de 2026.

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGPRQHE55ZKCK
Egiaztapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 8



epea egongo da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

9. IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Izapidetzea

a) Oinarri berezi hauetan bildutako laguntzak emateko instrukzio-organoa Amorebieta-Etxanoko Udala izango da.

b) Ebazpen proposamena egiteko organo eskuduna Dirulaguntzen Emakidako Batzordea izango da. Organo hori osatuko dute kide hauek:

- Presidentea: Idazkaritzako, Funtzio Publikoko, Gardentasuna eta Gobernantza Oneko zinegotzi ordezkaria eta Euskara, Berdintasuna eta Arkalaz zeharkakotasunaren koordinatzailea.
- Batzordekide: saileko teknikaria, idazkaria edo berak eskuordetzen duena, Kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duena.

c) Dagokion batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskabideak, eta, irizpen baten bidez, ebazpen-proposamen bat egingo dio organo eskudunari.

Ebazpena

Diru-laguntza horiek ebazteko organo eskuduna Alkatea izango da, eta ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua adieraziko dira.

justificativa de la realización de la acti objeto de subvención será hasta el 3 diciembre de 2026, desde el día siguiente publicación de la presente convocatoria Boletín Oficial de Bizkaia.

9. TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN

Tramitación

a) El órgano instructor para la concesión c presentes ayudas será el Ayuntamiento Amorebieta-Etxano.

b) El órgano competente para resolver se Comisión de Concesión de Subvenci estará formado por los siguientes miembr

- Presidente: Concejal de Secre Función Pública, Transparencia y Gobierno y coordinador de transversalidad de Euskera, Igual Arkalaz.
- Vocales: Técnico/a del Secretario/a o persona en delegue, Interventor/a o person quien delegue.

c) Las solicitudes serán estudiadas y eval por la correspondiente Comisión y, mediar dictamen, realizará una propuesta resolución al órgano competente.

Resolución

El órgano competente para la resoluci estas subvenciones será la Alcaldesa plazo máximo para resolver y notificar de cuatro meses a contar desde el fi plazo para la presentación de solicitud la resolución se hará constar la cuantía subvención y la forma de pago.

DEKRETUA DECRETO
Zenbakia: 2026-2510 Data: 04/09/2026

Baliozkotze Kod.: 7M6ADTXN6HTFLGRRQHE55ZKCK
Egiaztapena: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 8

